

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko urtarrila

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak % 26,8 gehitu dira 2025eko urtarrilean, eta gaudiak % 46,8

Apartamentu turistikoetan sarrerak % 50,2 igo ziren eta aterpetxe turistikoetan % 28,0

Eustatek landutako datuen arabera, **2025eko urtarrilean** % 26,8 gehitu ziren sarrerak Euskal AEko **landa-ostatueta**, aurreko urteko hil beraren aldean. Urte arteko igoera horrekin, urtarrilean 4.815 sarrera izan dira guztira. Bestalde, gaudiaren kopurua % 46,8 igo da urte artean 2025eko urtarrilean, eta 11.568 gau izan dira hilabete osoan.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Urtarrila 2025

	Sarrerak		Gaudiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	2024/01	2025/01	p.p.*	2025/01	p.p.*
EUSKAL AE	4.815	26,8	11.568	46,8	2,40	2,08	11,8	3,8	15,5	5,7
Estatukoak	4.079	16,6	9.386	31,4	2,30	2,04	-	-	-	-
Atzerritarrak	736	146,2	2.182	196,1	2,96	2,46	-	-	-	-
Araba/Álava	1.167	25,9	2.797	57,5	2,40	1,92	10,4	3,6	13,3	5,2
Estatukoak	1.024	13,7	2.299	32,3	2,25	1,93	-	-	-	-
Atzerritarrak	143	450,0	498	1.210,5	3,48	1,46	-	-	-	-
Bizkaia	1.322	12,6	3.060	26,6	2,31	2,06	11,3	2,5	14,3	3,9
Estatukoak	1.139	-0,8	2.708	18,8	2,38	1,99	-	-	-	-
Atzerritarrak	183	603,8	352	155,1	1,92	5,31	-	-	-	-
Gipuzkoa	2.326	37,1	5.711	54,9	2,46	2,17	12,9	4,7	17,5	7,3
Estatukoak	1.916	32,2	4.379	40,0	2,29	2,16	-	-	-	-
Atzerritarrak	410	66,0	1.332	137,4	3,25	2,27	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Otsailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2025eko urtarrilean Euskal AEko landa-ostatueta erregistratutako sarreraren % 84,7 estatukoak izan ziren, aurreko urteko hil beraren aldean % 16,6 igo ondoren. Estatuko ostatu-gauen kopurua % 31,4 igo da urte artean, eta 9.386an kokatu da, gaudi guztien % 81,1ean.

Urte arteko igoera % 12,6koa izan da Bizkaian eta % 25,9koa Araban, eta Gipuzkoan % 37,1ekoa. Ostatu-gauetako dagokienez, Bizkaian % 26,6 igo dira, eta 3.060ra iritsi dira. Araban % 57,5 hazi dira, 2.797; Gipuzkoan 5.711; % 54,9.

Euskal AEko establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,40 egunekoa izan da 2025eko urtarrilean, hau da, 2024ko hilabete berean izandako 2,08 eguneko batez besteko egonaldia baino handiagoa. Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Plazen eta gelen arabera okupazio-mailak ehuneko 3,8 eta 5,7 puntu igo dira, hurrenez hurren, eta % 11,8an kokatu dira plazen arabera neurtuta, eta % 15,5ean gelen arabera neurtuta.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2025eko urtarrilean 11.918 sarrera izan dira guztira, eta 45.387 gaualdi izan dira. Aurreko urteko urtarrilaren aldean, sarrerak % 50,2 gehitu dira eta gaualdiak % 19,8.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Urtarrila 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-beste egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamendua	
	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	2024/01	2025/01	p.p. *	2025/01	p.p. *
EUSKAL AE	11.918	50,2	45.387	19,8	3,81	4,77	30,0	2,8	58,1	2,9
Estatukoak	9.863	63,5	33.231	27,7	3,37	4,32	-	-	-	-
Atzerriarrak	2.054	7,9	12.156	2,6	5,92	6,22	-	-	-	-
Araba/Álava	563	16,1	8.300	13,9	14,73	15,01	26,5	3,1	71,5	-1,6
Estatukoak	496	14,0	5.420	9,3	10,93	11,39	-	-	-	-
Atzerriarrak	67	34,1	2.879	23,4	31,00	31,00	-	-	-	-
Bizkaia	8.856	65,1	18.950	41,3	2,14	2,50	27,3	5,6	38,6	7,1
Estatukoak	7.676	89,6	15.478	71,2	2,02	2,23	-	-	-	-
Atzerriarrak	1.180	-10,3	3.472	-20,7	2,94	3,33	-	-	-	-
Gipuzkoa	2.498	19,7	18.138	5,6	7,26	8,23	35,9	-1,5	73,5	1,9
Estatukoak	1.692	9,2	12.333	2,5	7,29	7,77	-	-	-	-
Atzerriarrak	807	50,0	5.805	13,0	7,19	9,55	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Otsailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 82,8 eta gaualdien % 73,2 estatuko bisitariei dagokie. Urte artean, % 63,5eko eta % 27,7ko igoerak izan dira, hurrenez hurren.

Establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 3,81 egunekoa izan da 2025eko urtarrilean, hau da, 2024ko urtarrilean izandakoa (4,77 egun) baino txikiagoa.

Lurralde historikoei dagokienez, batez besteko egonaldia 2,14 egunekoa izan da 2025eko urtarrilean Bizkaian, 7,26koa Gipuzkoan eta 14,73koa Araban.

Plazen okupazio maila % 30,0ra iritsi da Euskal AEn, 2024ko urtarrilaren aldean 2,8 puntu portzentual igo ondoren. Apartamentu bakoitzeko okupazio-maila, ehuneko 2,9 puntu hazi ondoren, % 58,1ean kokatu da.

Aterpetxe-turistikoetan, 2025eko urtarrilean, sarrerak eta gaualdiak 7.019 eta 12.059 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko urtarrilaren aldean, guztirakoek % 28,0ko igoera dakarte sarreraren kasuan eta % 0,9koa gaualdien kasuan.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Urtarrila 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	2024/01	2025/01	p.p.
EUSKAL AE	7.019	28,0	12.059	0,9	1,72	2,18	14,9	0,3
Estatukoak	4.229	48,9	6.991	29,4	1,65	1,90	-	-
Atzerritarrak	2.790	5,6	5.069	-22,7	1,82	2,48	-	-
Araba/Álava	392	91,1	506	48,5	1,29	1,66	11,3	3,9
Estatukoak	323	72,1	437	42,3	1,35	1,64	-	-
Atzerritarrak	69	293,5	69	104,6	1,00	1,92	-	-
Bizkaia	3.154	-10,0	5.918	-29,1	1,88	2,38	16,1	-4,5
Estatukoak	1.477	-13,5	2.580	-21,5	1,75	1,92	-	-
Atzerritarrak	1.676	-6,5	3.339	-34,0	1,99	2,82	-	-
Gipuzkoa	3.473	95,6	5.635	72,4	1,62	1,84	14,2	5,3
Estatukoak	2.429	157,2	3.975	119,7	1,64	1,92	-	-
Atzerritarrak	1.045	25,6	1.660	13,7	1,59	1,76	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Otsailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Batez besteko egonaldia 1,72 egunekoa izan da, eta 2024ko urtarrilean 2,18 egunekoa; betetze-maila % 14,9koa izan da, 0,3 puntu handiagoa aurreko urteko hil berean baino.

Informazio-oharra

2025eko urtarrilean, landa-ostatuaren ETHren erantzun-tasa % 97,6koa izan da, turismo-apartamentuena % **85,4koa** eta aterpetxe-turistikoaren kasuan % **91,3koa**.

Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prensa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62](#)